

## BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

3158

*AGINDUA, 2018ko ekainaren 7koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, HABEren Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumean ezarritako gaitasun-mailen ziurtagiriak eskuratzeko prozedurak ezartzen dituen 2016ko azaroaren 23ko Agindua aldatzen duena.*

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea sortu eta Euskaltegiak arautzeko onartu zen azaroaren 25eko 29/1983 Legearen 20. artikulua, eta helduentzako euskararen irakaskuntza burutzen duten euskaltegien eta beste zentro homologatuen jardura eta finantzaketari buruzko uztailaren 22ko 179/2003 Dekretuaren 4. artikulua ematen dizkidaten eskumenez baliatuz, xedapen horietan eta Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumean ezarritakoarekin bat etorritik, HABEren Zuzendaritza Batzordearen proposamenez, honako hau

### XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Aldatu egiten da HABEren Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumean ezarritako gaitasun-mailen ziurtagiriak eskuratzeko prozedurak ezartzeko den 2016ko azaroaren 23ko Aginduaren 4. artikulua 1. atala. Aldaketaren ondorioz, atal hori honela idatzita geldituko da:

«1.– Ebaluazio jarraitua balio egiaztatzaileaz aplikatzeko, urtean lau garai izango dira A1, A2, B1, B2, C1 eta C2 mailetan: lehenengoa, urriaren 1etik abenduaren 31ra bitarteko ikastaroak bilduko dituen; bigarrena, urriaren 1etik martxoaren 31ra bitartekoak bilduko dituen; hirugarrena, urriaren 1etik ekainaren 30era bitarteko ikastaroak bilduko dituen; eta laugarrena, uztailaren 1etik irailaren 30era bitarteko ikastaroak bilduko dituen.»

2. artikulua.– Aldatu egiten da HABEren Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumean ezarritako gaitasun-mailen ziurtagiriak eskuratzeko prozedurak ezartzeko den 2016ko azaroaren 23ko Aginduaren 10. artikulua 3. atalean Azterketa Batzordearen kideei egokitutako paragrafoa. Aldaketaren ondorioz, paragrafo hori honela idatzita geldituko da:

«– Kideak: batetik, euskaltegi publikoetako bi ordezkari eta euskaltegi pribatuetako eta euskara autoikaskuntzarako zentroetako bost ordezkari; eta bestetik, egiaztatze-aldirako hiru lurralde-arduradunak, Hizkuntzaren Didaktika Zerbitzuko Curriculumaren Garapena eta Ebaluazio ataletako arduradunak eta, idazkari-lanetan, zerbitzu bereko Programa Bereziatarako ataleko arduraduna.»

3. artikulua.– Aldatu egiten da HABEren Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumean ezarritako gaitasun-mailen ziurtagiriak eskuratzeko prozedurak ezartzeko den 2016ko azaroaren 23ko Aginduaren 18. artikulua bigarren paragrafoa. Aldaketaren ondorioz, atal hori honela idatzita geldituko da:

«Ebaluazio jarraituko jardueren bitartez eskuratutako ziurtagirien eragin-datak ebaluazio-garai bakoitzeko urtarrilaren 30a, apirilaren 30a, uztailaren 30a eta urriaren 30a izango dira.»

### XEDAPEN IRAGANKOR

2017-2018 ikasturteko lehen garaiko ebaluazio jarraituko jardueren bitartez eskuratutako ziurtagirien eragin-datak agindu honetan zehaztutakoak izango dira.

**AZKEN XEDAPENA**

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko ekainaren 7a.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,  
**BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.**